

**Elkartasun ekintza berria krisi garaiotan****EROSKI-K ELKARTASUN ZENTIMOAK IZENEKO  
PROGRAMA ATERA DU, ELIKAGAI BANKUEI  
LAGUNTZEKO**

- **Elkartasun Zentimoak** programa finkoaren bitartez, bezeroek ekarpenak egin ahalko dizkiote kausa sozial bati edo besteari; kausa horiek 3.500 bazkide-bezerori baino gehiagori entzunda hautatuak izan dira
- **Lehen kausa, urtarrilaren 6ra arte iraungo duena, COVID-19arekin era zaugarrian gelditu diren familien elikadura izango da Elikagaien Bankuen bidez.**
- **EROSKI joan deneko hogeitun urtean baino gehiagoan ari da FESBAlekin lankidetzan**

**Elorrio, 2020ko azaroaren 5a.-** [EROSKI](#)k martxan jarri du *Elkartasun Zentimoak* izeneko programa. Hala, bezeroek beren erosketako zentimo batzuk unean aktibo den kausa sozialera joango ote diren hautatu ahalko dute; kausa horiek 3.500 bazkide-bezerori baino gehiagori entzun eta gero hautatuak izan dira.

EROSKIren bezeroek ekarpenak egiteko lehenengo gizarte erakundea [Elikagaien Bankuaren Espainiako Federazioa](#) izango da; kooperatibak 20 urte baino gehiago daramatza harekin lankidetzan. Emandako dirua tokian tokiko Elikagaien Bankuei emango zaie, osasun larrialdian zaugarri gelditu diren familiei elikagaiak banatu diezazkieten. 1.100 saltokik baino gehiagok (supermerkatuak, hipermerkatuak eta EROSKIren frankiziak, [Vegalsa](#) eta [Caprabo](#)) aukera emango diete beren bezeroei ekarpen ekonomiko bat egin dezaten Elikagaien Bankuen alde.

*"Krisi sanitario honetan, are makurrago gelditu dira lehendik egoera zaugarrian zirenetako asko. Elikagaien Bankuek lan eskerga egiten dute salbuespen egoera honek jo duen jende horri laguntzeko, eta orain, inoiz baino gehiago behar dute gure laguntza eta berehalako elkartasuna, funtzionatzen jarrai dezaten"*, azaldu du EROSKIren Osasun eta Iraunkortasun arloko zuzendariak, Alejandro Martinez Berriochoak.

**EROSKI**Komunikazio Korporatiboko zuzendaria  
KRISTIAN PRIETO

Tel: 946 211 214

[comunicacion@eroski.es](mailto:comunicacion@eroski.es)**EROSKI – PRENTSA BULEGOA****CONSEJEROS DEL NORTE**JOANA G. LANDAZABAL  
EDURNE IZQUIERDO

Tel: 944 158 642

[Online prentsa aretoa](#)

*"Beste behin ere, EROSKI eskertu nahi dugu FESBALi halako une zailean laguntzeagatik. EROSKIren eta haren bezeroen elkartasunari esker, lehen mailako elikagai produktuak banatzeko baliabideak eduki ahalko ditugu, beharrik handiena dutenen artean banatzeko", esan du Elikagaien Bankuko Espainiako Federazioko zuzendari nagusiak, D. Miguel Fernandezek.*

Horretaz gainera, EROSKI bat egingo du aurten FESBAlek berak antolaturiko Bilketa Handiarekin, azaroaren 16tik 21era.

### **Elkartasun Zentimoak, kausa sozial askotarikoei laguntzeko**

*Elkartasun Zentimoak* programa berriaren bitartez, EROSKIko bezeroek dohaintza txiki bat egin ahalko diote ongintzazko kausa jakin bati erosketak txartelarekin edo sakelakoarekin egiteko orduan. Dohaintza, betiere borondatezkoa eta isilpekoa, kopuru finko bat da tiketeko zenbatekoaren arabera aldatzen dena. 5-30 euroko erosketetarako, 10 zentimo izango dira, eta 30 eurotik goragokoetarako, 20 zentimo.

*"Gure ustez, Elkartasun Zentimoak izeneko programa tresna eraginkorra da gure bezeroek modu errazean bidera dezaketelako bere konpromisoa gizarteko kausa askotarikoen alde. Programa finko bat da, eta haren bitartez alor askotako erakundeei lagunduko diegu, betiere norabide jakin batean, gehien behar dutenei laguntzea", azaldu du Osasun eta Iraunkortasun arloko zuzendariak.*

Maiztasun batekin, txandatu egingo dira laguntza jasoko duten erakundeak, bazkide-bezeroek hautatuta zein kausak kezkatzen dituen gehienbat. Horien artean, esaterako, egongo dira haurtzaroarekin lan egiten duten kanpainak eta erakundeak, gizarte bazterketa pairatzeko arriskua duten pertsonen aldekoak, minbiziaren aurkako borrokan aritzen direnak eta ingurumenaren alde aritzen direnak. 3.500 bezerorekin baino gehiagorekin egin genuen entzute-saio batean, kausa horiek aipatu zituzten gehienbat.

EROSKI martxan jarri du beste ekimen bat, [Worldcoo](#)rekin; Espainiako gizarte enpresa bat da dirua biltzeko kanal askotarikoak garatzen eta ezartzen dituen, gizarte erakundeei eta ingurumenaren aldekoen beren proiektuetan laguntzeko.

---

#### **EROSKI**

Komunikazio Korporatiboko zuzendaria  
KRISTIAN PRIETO

Tel: 946 211 214

[comunicacion@eroski.es](mailto:comunicacion@eroski.es)

#### **EROSKI – PRENTSA BULEGOA CONSEJEROS DEL NORTE**

JOANA G. LANDAZABAL  
EDURNE IZQUIERDO

Tel: 944 158 642

[Online prentsa aretoa](#)